

**2010EKO IRAILAREN 27AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO
OHIKO BILERAREN AKTA**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea

ARETOA: Batzar Aretoa

EGUNA: Hogeita zazpia

HILABETEA: Iraila

URTEA: Bi mila eta hamar

HASIERAKO ORDUA: Goizeko hamarrak eta erdi.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Bigarrena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Sei (6)

MAHAIBURUA: Patxi Plazaola Muguruza

BILDUAK: Aitor Aldasoro Iturbe

Fernando Boada González

Julio Herreros Serna

EZ DA ETORRI: Jon Kortaberria Lasa

Begoña Lasa Royuela

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTA. 2010eko irailaren 10eko aktaren berri eman ondoren, bildutakoek aho batez onartu dute aktarekiko zeresanik ez dagoelako.

2.- OBRAK ESLEITZEA. Igartzako presarako erakusleku-guneari buruzko Proiektua exekutatzeko egin behar diren obrak esleitzea.

Ezagutzera eman da, 2010eko irailaren 27ko kontratazio-mahaiaren proposamena:

“Gobernu Batzordeak 2010eko apirilaren 12an, Igartzako presarako eskusleku-guneari buruzko Proiektua exekutatzeko deialdia egiten erabaki zuen, prozedura irekia eta izapidetze arruntaren bidez obrak kontratatzeko. Horretarako baldintza plegua onartu zuen.

Lizitazio prezioa, ondorengoa izan zen:

355.274,69 € BEZik gabe, 412.117,99 € BEZ barne.

Lehiaketaren deialdia, 2010eko apirilaren 26an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen eta eskaintzak aurkezteko epean ondorengo enpresak aurkeztu ziren:

- CONSTRUCCIONES ARTZAMENDI, S.A., UTE, ANTIA, S.L.- EXCAVACIONES Y OBRAS DE DIEGO, S.L., KARBER, BIOETXE, KOLDO KEREJETA, S.L. ,OTEGI-GAZTAÑAGA, CONSTRUCCIONES ITURRIOZ, S.A.

1 kartazalaren dokumentazioa aztertu ondoren, 2010eko ekainaren 16an, 2 kartazala irekitzen da eta eskaintzak aztertu dira baldintza pleguaren 20. artikuluan adierazitako esleipen-irizpide hauei buruz::

- Obraren azterketa. Lanen egitaraua: 0tik 45 puntura.
- Obrari atxikitako pertsonala eta asistentzia teknikoak: 0tik 5 punturaino.

Horren ondorioz, honako puntuazioa hau ematen zaie:

	Obraren azterketa	Pertsonala eta asistentzia teknikoak	Puntuak guztira
ARTZAMENDI	18,82	3	21,82
UTE, ANTIA-DE DIEGO	33,55	5	38,55
KARBER	30,27	5	35,27
BIOETXE	38,45	5	43,45
KOLDO KEREJETA	13,09	2	15,09
OTEGI-GAZTAÑAGA	31,09	5	36,09
ITURRIOZ	34,36	5	39,36

2010eko irailaren 14ko datarekin, lizitatuzaileek aurkeztutako 3. kartazalak ireki ziren eta emaitza ondorengo izan zen:

Lizitazio prezioa				
355.274,13				
	Eskainitako prezioa	%/lizitazio prezioa	Eskaintzaren diferentzia	Puntuazio ekonomikoa
CONSTRUCC. ITURRIOZ	313.677,70	88,29	-3,40	43,2
OTEGI-GAZTAÑAGA	342.087,00	96,29	4,60	40,8
KARBER	338.295,19	95,22	3,53	42,94
ARTZAMENDI	318.256,72	89,58	-2,11	45,78
CONSTRUCC. ANTIA	303.969,08	85,56	-6,13	37,74
KOLDO KEREJETA	318.077,91	89,53	-2,16	45,68
BIOETXE	345.887,65	97,36	5,67	38,66
Media de las oferta	325.750,18	91,69		

2. kartazaleko puntuazioei, 3. kartazalekoa gehituta, emaitza honako hau da:

ENPRESAK	2. KARTAZALA	3. KARTAZALA	PUNTUAZIOA
CONS. ITURRIOZ	39,36	43,3	82,56
BIOETXE	43,45	38,66	82,11
KARBER	35,27	42,94	78,21
OTEGI- GAZTAÑAGA	36,09	40,8	76,89
CONS. ANTIA	38,55	37,74	76,29
ARTZAMENDI	21,82	45,78	67,6
KOLDO KEREJETA	15,09	45,68	60,77

Horren ondorioz, Kontratazio-Mahaiak Gobernu Batzordeari ondorengo proposamena egiten dio:

Lehenik. Igartzako presarako erakusleku guneari buruzko proiektuaren exekuzioa, CONSTRUCCIONES ITURRIOZ, S.A.ren alde behin-behineko onespena egitea, berak aurkeztutako eskaintzaren arabera eta jarraian adierazten den prezio eta epean:

1.- Prezioa / precio: **313.677,70 €**, **BEZik gabe, sin IVA.**

2.- Epea / plazo: **25** aste / semanas

Bigarren. Esleipendunak 15 laneguneko epean kontratatzailearen profilean behin-behineko esleipena argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita, **15.683,89 €**ko behin betiko fidantza aurkeztu beharko du.”

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

3.- OBRAK KONTRATATZEA. Lorategi kalea berritzeko eta egokitzeko (zoladura berria) obrak kontratatzeko proiektua eta baldintza plegua onartzea.

Hirigintza batzordeak proposatuta, aho batez ondorengo erabaki da:

Lorategi kalea berritzeko eta egokitzeko (zoladura berria) obrak kontratatzeke proiektua eta baldintza plegua onartzea. Baldintza pleguaren ezaugarri berezienak honako hauek dira:

1.- Obrak kontratatzeke prozedura: prozedura negoziatuta publizitaterik gabe.

2.- Aurrekontua, BEZa barne: 200.159,70 €.

3.- Egikaritze-epea: 8 aste.

4.- Esleipen-irizpidea: prezio baxuarena izango da.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

4.- AZKENEKO OBRA-ZIURTAGIRIA. 1. eta 2. faseak kale Nagusia oinaztatzeke buruzko azken obra-ziurtagiria onartzea.

Udal aparejadoreak kale Nagusia (1. eta 2. faseak) oinaztatzeke buruzko azken obra-ziurtagiriarekiko 2010eko irailaren 20an egindako txostenaren berri eman da:

“AURREKARIAK:

Gobernu Batzordeak, 2009ko ekainaren 10ean egindako bilkuran, “1 AREAKo (I eta II faseak) urbanizazio lanak, KALE NAGUSIA ETA PLAZARI dagozkionak” kontratatzea erabaki zuen prozedura ireki eta premiazko izapidetzearen bitartez, eta horretarako baldintza pleguak onartu zituen 1.376.308,30 euroko lizitazio prezioarekin (BEZ barne) eta lanak egiteko 43 asteko epearekin.

Bai kontratazio mahaiak, bai Gobernu Batzordeak aipatutako obrak egiteko URBYCOLAN S.L. enpresa kontratatzea erabaki zuten, 1.313.187,69 eurotan (BEZ BARNE) eta lanak amaitzeko 36 asteko epearekin.

Obrak egin bitartean, aurreikusitako gabeko hainbat ezusteko izan dira, ondoren zehazten direnak:

- PLAZAKO HORMAK BERRERAIKITZEA. Bere garaian adierazi zen moduan, estali gabeko eta estalitako plazak lotzen dituen eskailerarentzako zulo berria egiterakoan, dauden hormen zati batzuk beheara erori ziren ez baitzuten ez zapatarik ez armaturarik. Hormen erdia baino gehiago berreraiki eta horma horien arkugainerak saneatu behar izan ziren.*
- URTUTAKO BURDINAZKO BARANDA. Proiektuan aurreikusita zegoen urtutako burdinazko baranda kentzea eta ondoren berriro jartzea (Beasain modeloa) eta obrak egiten ari zirenean berrerabiltzeko moduan ez zegoela egiaztatu ahal izan zen, izan ere, oso kaltetuta zegoen. Ondorioz, molde berriak egin behar izan ziren. Molde berri horiek Udalaren jabetzakoak dira, etorkizunean berriro jarri beharko direnerako.*
- EUSKALTELEN KANALIZAZIOA BERRITZEA. EUSKALTELEN kanalizazioak asfaltozko zoladuraren kotarekiko oso azalean zeudela jakina zen arren, pentsatzen zen horien kota jaitsi ahal izango zela zoladura berriarekin ezkutatzeko moduan. Hala ere, errealitateak desbideraketak egitera eta KALE NAGUSIAN kanalizazio berria egitera behartu gintuen eta horrek, noski, kostua handiagotu egin zuen.*
- PLAZAREN EGITURA ZAHARBERRITZEA. Partida hau gutxi gorabeherakoa zen, izan ere, obrak hasi aurretik ez zegoen aurreikusterik egoera erreala zein izango zen. Behin obrak egiten hasi zirenean, habeen %80k patologia larriak zituela egiaztatu ahal izan zen, metalezko egituraren zati bat estaldurarik gabe geratzen baitzen eta horrek denborarekin asko hondatzeko arriskua du. Armadura positibatzeko lanak egin behar izan dira, eta estaldurarako eta lehen zegoen hormigoia berriarekin lotzeko mortero bereziak erabili behar izan dira.*

- *AZOKARAKO KUADRO ELEKTRIKOAK. Zerbitzu Sailaren aginduz azokako postuek argindarra hartzeko hainbat koadro berri jarri dira.*
- *SARRERA ETA IRTEEREN KONTROLERAKO KANALIZAZIOA. Sarrera eta irteeren kontrolerako kanalizazio berri bat egin da zentrala udaletxean izango duena. Proiektuan ez zegoen aurreikusita.*
- *KIOSKOKO ARGIEEN ALDAKETA. KIOSKOan zeuden argiak kendu eta antzeko beste batzuk jarri dira zeudenak kaltetura zeudelako eta nahikoa argi ematen ez zutelako.*

Gehikuntza hauen guztien ondorioz hazi egin da KALE NAGUSIA OINEZTATZEKO I eta II FASEetako obren azken likidazioa eta 1.459.932,91 (BEZ BARNE) euroa iritsi da. Honek esleipen prezioarekiko %11ko desbideratzea suposatzen du aurkeztu den ziurtagirian xehatuta ikus daitekeen moduan.

Aurkeztutako agirietan eta aurrekarietan oinarrituta ondorengo txostena egiten da:

TXOSTENA:

1. *Aurkeztutako LIKIDAZIOA onartzeko proposatzea 1.459.932,91 euroko kopurua (BEZ BARNE), kontuan izanda izandako desbideratzea justifikatuta dagoela txosten honetan adierazi den moduan.”*

Bozketa eginda, aho batez onartu da esleitutako diru-kopuruaren eta likidatutakoaren artean dagoen desbideraketa.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera goizeko hamaiketan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.